



Xanduli, manduli

DEBABARENA

Tripontziak

KLUB GASTRONOMIKOA

Erreserbatu zure
bisita gidatua eta
Tripontziak menua!

Azaroaren 8tik abenduaren 1era

Menua 35€



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

ELGOIBARKO IZARRAREN

HAIN
GIPUZKOA

DEBA
BARRENA

Debegeso

EUSKADI

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**,
Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Betizuren
liburuak



Kopak



Mugertza kroseko
sarrera-bonoak



Aurikularrak



Margolana



Bozgorailuak



"Euskaldunak
Elgoibarren" liburuak



Kilimon trail
kamisetak



Mugikorrentzako
euskarriak



Pitillera



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Edurne Izagirre

Psikologoa

Erasoa da edo ez, hortxe dago kokka



"Erasotzen duena erasotzailea da, eta guztiok dugu horretarako gaitasuna"

Erasoa bada, erasotzailea dago, eta gure pentsamendu patriarkal/kristaua zigor edo barkamen bat zehaztuz konpontzen saiatzen da egoera, gure justizia ideala zapuztu ez dadin.

Baina, zer iruditzen zaigu zigorgarria? Zenbaterainoko da umekerien zakua?

Eta logika honetatik, nola ulertu matxismoa eta arrazakeria? Automatikoki, inolako kontzientziarik gabe, egiten ditugun jarrera baztertzaleak zigorgarriak al dira? Eta zigorgarriak ez badira, umekeri bihurtzen al dira?

Agian horixe da gakoa, ez dugula heldu nahi; nerabe izaten jarraitu nahi dugu betirako, gure kontraesanak besarkatu eta inolako ardura afektiborik asumitu gabe; eta horregatik nerabeen artean gertatzen direnak naturalizat hartzen ditugu, geure islada horrek inolako hausnarketarik sustatu gabe.

Gure zintzotasuna ez dugu auzitan jarri nahi, ezta geurena ere, eta zintzoek ez dute minik egiten, ezta?

Izaera sozialeko animaliak gara eta bizi komunitarioa hierarkikoki antolatzen dugu, botere sistema bat ezarri erlazioak antolatzeko; beraz, gure oinarriko bultzadetako bat da hierarkia sisteman leku bat izateko borrokatzea. Horrek botere jokuetan sartzea dakar, eta horretarako pribilegio leku bat eskaintzen digun hierarkia elikatzea eta indartzea joera naturala da.

Beraz, hartu dezagun kontzientzia! Gure seme-alabek arrazakeriari eta matxismoari eutsiko diete, horrek taldean balioko leku bat izatea baimentzen badie; eta hori ez badugu lantzen, erasotzaile izateko probabilitatea ia %100ekoa da. Erasotzen duena erasotzailea da, eta guztiok dugu horretarako gaitasuna.

Oharra

Azaroaren 1ean jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 8an jasoko duzue.

BARREN

King Kong-eko garajeetako obrei buruzko kexak

King Kong izenez ezagutzen den San Frantzisko 21eko bizilagunok, gure eraikineko garaje batzuetan egiten ari diren obrei buruzko kexak ezagutu ondoren, eta beharbada ezjakintasunaetik eginda daudelako, bidegabetzat jotzen ditugunak, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Obra horiek ez dira jabeen kapritxoagatik, baizik eta Urazandira joateko arrapala berriaren euskarri izango diren karga-hormak sendotzeko beharragatik, arrapala hori egungoa baino askoz luzeagoa izango baita.

2. Horren eraginaren ondorioz, garaje batzuk espazio murrizketa jasango dute. Ez dute inolako

konpentsaziorik jasoko, hamabost egunez aparkatzeko leku bat izatea izan ezik.

3. Egungo zubiaren eta arrapalaren oinarri den plazatxo erabilera publikoa duen leku pribatua da. Bertatik, milaka pertsona igarotzen dira, aterpe gisa erabiltzen dute herritarrek eta banaketa-kamioneta asko igotzen dira plazara, kalean aparkatu behar dutenean. Hori dela-eta, asfaltozko geruza hausten da eta garajeetan hezetasunak agertzen dira.

4. Kalte horiek, plaza pribatuak direnez, bertako jabekideen kontura dira.

5. Ez dugu errekonozimendurik espero gure jarrera altruistagatik, baina pentsatzen dugu ez dela gure errua aparkaleku nahikoa ez egotea anbulatorioetik gertu eta ez dugula inolako pribilegiorik jaso.

San Frantzisko 21eko jabekideak



Zabaldtu atea
BARREN astekariari,
eta egin zaitetz
harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

943 744 112
barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

RH6A71WO ROWENTA
ERRATZ-XURGAGAILUA

199 €



- Kablerik gabe
- 140 W Potentzia
- 18 V bateria
- 45 minutuko autonomia
- 1 litroko edukiera
- Diseinu ergonomikoa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Txakur kakak batu eta zakarrontzira

bota behar dira: "Ez da gure auzoan horrelako poltsak agertzen diren lehenengo aldia. Txakur-jabe batzuek kakak batu ostean, poltsa edozein lekutan botatzen dute, eta hori zikinkeria hutsa da. Kakak jaso eta zakarrontzira bota behar dira".



Zergatik ez dago autobus zerbitzurik Elgoibartik Bilbora edo Gasteizera joateko?

"Donostiara orduro dago autobusa, eta, iruditzen zait EAEko gainontzeko hiriburuetera ere gutxieneko zerbitzu bat egon beharko litzatekeela. Elgoibartar askok egiten dugu lan edo ikasten dugu Gasteizen edo Bilbon, eta eskertuko genuke zerbitzu hori izatea. Ekainean irakurri genuen herriko alkatea Mugikortasuneko diputatuarekin bildu zela, ustez, herriko garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko, baina ez da aldaketarik egon. Autoaren erabilera murrizteko eskatzen digute behin eta berriro, baina horretarako ezinbestekoa da garraio publikoa herrian bertan eskuragarri izatea. Eskertuko nuke Udalak gai hau mahai gainean jartzea eta herritarren aldeko politikak


sustatzea". BARRENEK Udalera jo du, eta Maialen Gurrutxaga alkateak eman dio erantzuna: "Eskerrik asko zure eskaera bideratzeagatik. Mugikortasuna Elgoibarko Udal Gobernuarentzat estrategikoa da, bai herri barrukoa, eta baita inguruko herri eta hiriekin konektatuta egotea ere. Orain arte, esan bezala, Gipuzkoako Mugikortasun diputatuarekin batu gara lotura horiek hobetzeko. Gure lan-ildoetako bat da Bilbo zein Gasteizera konektatzeko aukerak aztertzea, beste lurraldeetako diputatuen laguntzarekin. Mahai gainean legealdi hasieratik dugun gaia da, eta lanean ari gara honekin bezala herritarrentzako politika publikoak garatzeko, gure lana baita. Espero dugu epe laburrean lanketa horrek emaitzak izatea, herritarren mugikortasuna hobetzeko".



"Eskerrik asko Udaltzaingoiari":

"Gaizki eginak kritikatzin ditugun bezala, ondo eginak eskertzea ere badagokigunez, Elgoibarko udaltzainei eskerrak eman nahi nizkieke, ostiral


iluntzean sortu zitzaidan arazo baten aurrean lagundu zidatelako. Profesionaltasun handiz jokatu zuten, azkartasunez, efizientziaz eta adeitasunez erantzun zioten nire eskaerari; beraz mila esker!!!".



LAGUNAK
colchonería textil hogar

San Roke kalea, 20
Elgoibar

**TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,
TEMPUR FORM
KOLTZOI BAT EROSTEAGATIK.
(IKUSI BALDINTZAK)***



**TEMPUR
FORM
KOLTZOIA**

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Elgoibarko Lanbide Heziketaren testuingu historikoa izan dute aztergai Jubilatuen Biltokian

Lanbide Heziketaren 125. urteurrenaren harira, kafe-tertulia egin zuten eguaztenean, Jubilatuen Biltokian. Argazki proiektzioa egin zuten, eta Pello Arrieta historialariak eman zituen argibideak. Atzera begira jarri ziren, eta iraganera egin zuten bidaia. Burdinoletan aritzen ziren errementarien garaitik hasi eta 60ko hamarkadara arteko errepasoak egin zuen. Kafea eta pastak dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.



Urrezko ezteiak bete dituzten bederatzikoa omendu dituzte Adinekoen Hilabetearen barruan



Adinekoen hilabetearen barruan, 80 urtetik gorakoekin bazkaria egin zuten joan zen astean Jubilatuen Biltokian, eta 159 lagun elkartu ziren guztira. Ohi bezala, aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak omendu zituzten bazkari horretan, elkarrekin 50 urte edo gehiago daramatzatelako. Aurten, 1974. urtean ezkondu ziren bederatzikoa izan ziren aitortza jaso

duzenak, honako hauek: Izaskun Irastorza eta Demetrio De La Horra, Maria Teresa Casado eta Saturnino Leon, Maria Olivas Hervas eta Antonio Ballesteros, Santi Dieguez eta Arrate Alberdi, Isaac Munin eta Aurora Rodriguez, Daniel Marin eta Manuela Barrio, Mariano Rodelgo eta Maria Amparo Estevez, Matias Hernandez eta Emilia Rodriguez eta Marga Gurrutxaga eta Ignacio Galdona.

Urriaren 30ean hasiko dituzte berriro mobilizazioak Elgoibarko 24/7 Plataformakoek

Udako geldialdiaren ondoren, urriaren 30ean ekingo dio berriro mobilizazioen dinamikari Elgoibarko 24/7 Plataformak, anbulatorioko larrialdi-zerbitzu iraunkorra berreskuratzea eskatzeko. Kontzentrazioa 12:00etan izango da, anbulatorioaren aurrean. Plataformak bere kezka helarazi die herritarrei, euren ustez Eusko Jaurlaritzak eta Elgoibarko Udaleko udalbatzak ez dutelako ezer egin Elgoibarko herritar guztiei eragiten dien arazo hori konpontzeko. Ildo horretan, Plataformatik gogorarazi dute anbulatorio berri batek ez duela arazo hori konpontzen, Osakidetzako profesionalak eta erabiltzaileek instalazio hobek izatea beti berri ona dela uste duen arren. Salatu dute ia 4 urte



igaro direla pandemiatik eta hiru urte direla 5.501 herritarrek manifestu bat sinatu zutenetik anbulatorioan larrialdi-zerbitzu iraunkorra berriro irekitzeko eskatuz, baina egoera ez dela aldatu.

Sexualitateari buruzko emakumeentzako mindfulsex saioa Lilan, astelehenean

Sexualitate oso baterako gida praktikoa izeneko mindfulsex saioa gidatuko du Loredi Salegik urriaren 28an (astelehena), Elgoibarko Lila emakumeen

etxean. Bi orduko saioa izango da, 18:00etatik 20:00ak artekoa. Emakumeentzako saioa da eta bi hizkuntzatan izango da: euskaraz eta gaztelaniaz.

Palestinari babesa eman diete Elgoibarren eta Mendaron



Euskal Herriko herri guztietarako egin zuten elkarretaratzeak egiteko deialdia Gernika-Palestina herri ekimenak, Israelen genozidioa salatzen. *Palestina askatu eta Palestina SOS sarraskia gelditu* leloak zituzten pankarten atzean batu ziren Elgoibarren eta Mendaron ere. Elgoibarren ehun bat lagun batu ziren Kalegoen plazan eta hogeita bat lagun Mendaroko Herriko Enparantzan.



Jolasa kalera aterako dute gaur herriko eragileek

Jolasaren Astearen barruan, jolasa kalera aterako dute gaur Elgoibarko zenbait eragileek. Atxutxiamaiak, Ludoteka eta Gaztelekuak antolatu dute egitasmoa, eta herriko hainbat eragileek ere hartuko du parte gaurko ekintzan: Egurrek, Bizilabek eta Eskola Kirolak. 17:00etatik 19:00etara bitartean jolas desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute umeei, kalegoen plazan. Euria egingo balu, elizako arkupeetan egingo lukete.



Artile tailerra egingo dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Hilabeteko azken zapatuko feria antolatu dute biharko, eta hilero moduan, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da 09:00etatik aurrera. Artalde taldeko artisauek ere jarriko dituzte euren produktuak salgai, eta 11:00etan txosna zabalduko du Dislegi elkarteak. Berrikuntza moduan, artile tailerra antolatu dute

oraingoan, familientzat. 12:00etatik aurrera, artilearen prozesu osoa ezagutzeko aukera izango dute, Garazi Pascual adituaren eskutik. Fieltroarekin eskulanak ere egingo dituzte, eta bakoitzak etxera eramateko aukera izango du egingako lana. Ganadu feria ere egongo da, eguerditik aurrera Kalebarren plazan.

Altzolako bizilagunek Arartekoaren bulegoan defendatu dute tren geltokia

Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformako kideek bilera izan dute Arartekoaren bulegoan. Arartekoa bera Estrasburgon zegoenez, Faustino Lopez de Foronda (idazkari nagusia), Carlos Barcina (Hirigintza eta Ingurumen Sailak), Miren Bruño (Herri lan eta Garraio Saila) eta Iosune Etxeberrarekin (teknikaria) batu ziren. 1997tik gaur egunera arte Altzolako tren geltokiaren inguruan esan direnak azaldu zieten plataformako kideek, eta azalpenen ondoren, bi jardunbide irekiko zituztela erabaki zuten:

1. ETSk hasierako proiektutik estazioa ezabatu zuen 12 hilabeteetan Herritarren Partaidetzarik ez izatea. "Herritarrok parte-hartzeko eskubidea dugu, eta administrazio publikoen betebeharra da prozesu horiek abian jartzea", adierazi dute plataformako kideek.

2. Geltokia ezabatzen duen proiektua Euskal Herriko Boletin Ofizialean ez argitaratu izana. Izan ere, horrek herritarrei alegazioak aurkeztea galarazi zien. "Zalantzarik gabe, jarriko genituen alegazioak, proiektu honetan geltokia ezabatzen



dela jakin izan bagenu. Erakunde publikoen betebeharra da boletinaren bidez herritarrei jakinaraztea aurreko proiektuarekiko funtsezko aldaketa dakarten proiektuak", esan dute.

Orain, Susana Garcia Chueca Mugikortasun Iraunkorreko sailburuari eskatuko diote bilera. Geltokia mantentzearen aldeko 6.000 sinadura baino gehiago bildu ditu plataformak, eta Altzolako tren geltokia ez kentzeaz gain, geltoki berri eta irisgarria egitea dute helburu.

Hasi da Errigoraren udazkeneko kanpaina

Urriaren 24tik azaroaren 14ra arte iraungo du Errigoraren udazkeneko kanpainak. Nafarroa erdiko eta hegoaldeko produktuz osatutako hiru saski eskainiko dituzte eta horien balioaren %25 zonaldeko euskalgintzara bideratuko dute. Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian



bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Saskiak eta kartak eskatzeko *errigora.eus* webgunean sartu behar da.



Txirristaka bertsolariari buruzko liburua aurkeztuko dute Mendaron azaroan

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemugako ekintzen barruan, *Txirristaka* liburua aurkeztuko dute azaroaren 6an. Herritar talde batekin eta Udalarekin

elkarlanean ondu dute lana, eta Andoni Egaña bertsolariak idatzi du liburuko testua eta Ainara Azpiazu *Axpi* ilustratzaileak jantzi du marrazkiz. 18:30ean izango da, Mendaroko udaletxean.

Gor-itsutasunaren inguruko sentsibilizazio saioa eman du Sara Crespok Mekan



Emakume gor-itsua eta aktibista konprometituta da Sara Crespo. Haur gorren andereñoa eta gaztelaniazko zeinu-hizkuntzako irakaslea izateaz gainera, *Sordociega en ruta* proiektuaren sustatzailea ere bada. Gaur egun, Espainian barrena dabil, *Sordociega en ruta* (Gor-itsua bidean) proiektuarekin, gor-itsuei ikusgarritasuna emateko. Autokarabana batean bidaiatzen dihardu, Kalish txakur gidariarekin eta txofer baten laguntzarekin. Joan den barikuan Elgoibarko Meka ikastetxean egin zuen geldialdia Cresporen autokarabanak.

Lanbide Heziketako zentrotik jakinarazi dutenez, martxan duten Komunikazio Bitartekotza ziklo berriaren baitan etorri zen bisitan Sara Crespo. "Pertsona gor-itsuen inguruko tailerra egin genuen lehenik, eta bere bizipenak partekatu zizkigun ondoren. Jarduera oso interesgarria izan zen eta asko ikasi genuen", azaldu dute. Hiru orduz egon zen ikasleekin eta hainbat ariketa egin zituzten pertsona itsuen zein gorren eguneroko oztopo eta bizipenak ulertzeko.



Elur Arrieta eta Actea Jimenez tinbal-jolea.

“Publikoak nola erantzuten duen ikustea sekulakoa da, ez gaude oso ohituta horrelakoetara”

ELUR ARRIETA

Musikaria

 Ainhoa Andonegi

Ura Bere Bidean kontzertua hartuko du Bilboko BEC aretoak asteburu honetan. Bi egunetan izango da kontzertua, gaur eta bihar, eta Euskal Herriko musikagintzako abeslari ezagunek kantatuko dute, Bilboko orkestra sinfonikoarekin. 90 bat musikari izango dira guztira oholztan, eta Elur Arrieta (Elgoibar, 1983) musikari elgoibartarra izango da horietako bat. Jaialdiaren sorreratik hartu du parte Arrietak ekitaldian, eta aurten ere, bera izango da perkusio jotzaileetako bat.

Ura Bere Bidean kontzertuan parte hartuko duzu. Zer da kontzertu horretako parte izatea?

Emanaldi jendetsua da, eta entzuleak gainera jarrera oso aktiboarekin etortzen dira kontzertura, dena ematera. Orkestrek ematen dituzten kontzertuekin alderatuta, oso desberdina da testuingurua. Normalean areto txikiagoetan jotzen dugu, isiltasunean, jende gutxiren aurrean, argi gutxiagorekin... Hau desberdina da guztiz. Oholtza gaineko kokapena sekulakoa da, eta bakoitza bere aurikularrekin egoten gara. Badauka xarma berezi bat, eta bereziena da publikoaren berotasuna izugarri sentitzen dela. 12.000 pertsonaren aurrean jotzen dugu, eta hori sekulakoa da. Txaloka hasten direnean edo denek batera kantatzen dutenean 12.000 dira, eta zirrara handia sortzen du. Baina orkestren emanaldien egutegian, beste bat gehiago da. Aste honetan, jakina, oso presente daukat eta horretarako lanean ari naiz, baina orkestrek Euskal Herrian programazio egonkorra daukate eta hor barruan lanean gabiltzanok askotan izaten ditugu bi kontzertu astean, eta kasu batzuetan, bost kontzertu ere jo ditzakegu aste berean. Emanaldiak bata bestearen atzetik pilatzen zaizkigu, eta kontzertu handiak asko izaten dira, nahiz eta ez diren hau bezain jendetsuak. Baina bai, kontzertu freskoa da, eta guri ere gustatzen zaigu. Kontzertu amaieran orkestra aurkezten dutenean, jendeak nola erantzuten duen ikustea sekulakoa da; ez gaude oso ohituta horrelakoetara. Momentu horien ostean askotan jarri naiz pentsatzera adibidez Bruce Springsteen moduko artistetan; neurri horretako artistek nola lortzen duten iparrik ez galtzea eta hankak lurrean edukitzea halakoen aurrean. Publikoaren entrega horrek gorputzean eta burmuinean sortzen dituen erreakzio kimikoek guztiz desorekatzen dute gorputza. Euforia handia sentitzen duzu, ezin duzu ondo lo egin eta horrek guztiak eragina dauka osasunean.

Euskal musikagintzako abesti ezagunenetarikoak, Bilboko orkestrarekin. Estilo horretako fusioak gustuko ditu jendeak.

Abesti ezagunak dira bai, baina guretzat. Kontuan hartu behar da orkestrako musikari asko atzeritarrak direla eta haientzat ez direla hain ezagunak. Haien ere harrিতa geratzen dira

ikustean zer nolako berotasunarekin egiten digun harrera publikoak, nola kantatzen duten denek batera... Formatoa oso potentea da. Fernando Velazquezek prestatu ditu abesti guztiak orkestrarekin jotzeko eta berak zuzentzen du emanaldia. Azkenaldian filmetako soinu bandak ere egiten ditu eta film ezagunetan hartu du parte. Nik uste dut Ken Zazpi taldearekin hasi zuela ibilbide hau. Ken Zazpi atera zuen disko bat Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, sekulako diskoa nire ustez, eta bira ere egin zuten. Ikusita ondo funtzionatu zuela, beste abeslari batzuekin ere hasi zen lanean, Izarorekin, Idoiarekin..., eta pandemia ostean sortu zuten Ura Bere Bidean jaialdia. Lehenengo edizioa Miribillan izan zen, eta geroztik BECen egiten da. Fenomeno bat bilakatu da. Iaz entsegurako sarrerak ere saldu zituzten, eta aurten bi kontzertu izango dira, bi egunetan. Sarrerak berehala agortu ziren gainera. Ni lehenengo ediziotik nago jaialdian, hasieran orkestrak berak kontratatuta eta orain jaialdiko antolakuntzak zuzenean kontratatuta.

Nola prestatzen zara kontzerturako?

90 bat musikari egongo gara oholtzan, eta nik perkusioa joko dut. Zortzi bat perkusionista egongo gara. Orkestra oso hierarkikoa da, eta rolak oso ondo banatuta daude. Perkusionisten solista da gure arduraduna, eta bere lana sekzioak ondo funtzionatzea da. Berak erabakitzen du zeini

deitu jotzera joateko eta musikari bakoitzari zein instrumentu esleitu. Nik xilofonoa eta metalofonoa joko ditut, besteak beste. Nire kontura prestatuko ditut nire atalak, eta entsegu orokorrean joko ditut instrumentuak. Astearte arratsaldean hasten ditugu entseguak. Asteazkenean goizez joango gara lehenengo eta gero berriz gauez, eta ostegunean berdin. Ordu asko dira; gorputzari eskatzen diogu adi egoteko goizean eta gauean, tartean ordu gutxi batzuk deskantsatuta. Igandera oso nekatuta iritsiko gara, aje moduko batekin, baina pozik, lana ondo egindako sentazioarekin. Oro har, ez gara gizarte alai batean bizi, eta kontzertuan behintzat jendeak tristurak ahaztea lortzen dugu; poza ematen du horrek. Musikaren helburuetako bat horixe da hain justu: jendearengan sentimendu positiboak eragitea.

Gero eta talde gehiago dira urtebeteko aurretiaz jartzen dituztenak salgai kontzertuetarako sarrerak. Zer iritzi duzu horren inguruan?

Eskaintza kulturala inoiz baino zabalagoa da gaur egun, eta eskaintza horren barruan lekua egitea ez da erraza. Ulertzen dut kontsumitzaileen ikuspuntutik izan daitekeela deserosoa hainbesteko aurrerapenarekin planak egin behar izatea, baina musikariontzako epe luzerako lana ziurtatzeko modua da. Sektore honetan lan baldintza gogorak ditugu, eta apur bat duinagoak izan daitezke modu horretan.



Iazko Ura Bidean kontzertuko argazkia. Bizkarrez eta tente, Elur Arrieta bera.

BABESTUTAKO EDUKIA DEBABARRENEKO ENERGIA BULEGOA

Eguzki-energia eskura

EGUZKI-ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRI NAGUSIENETAKO DA

Eguzki-energiak eta energia-iturri berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia-sistema iraunkorrago baterako trantsizioan. Eguzki-plakek, bereziki, bilakaera teknologiko nabarmena izan dute, eta efizienteagoak eta eskuragarriagoak bihurtu dira, bai etxerako, bai industrierako. Horri esker, pertsona eta erakunde askok murriztu egin dute sare elektriko tradizionalerako mendekotasuna, eta, hala, murriztu egin dituzte haien energia-kostuak eta karbono-aztarna.

Testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak dira eguzki-energiaren funtzionamenduari, haren onurei, kostuei eta instalazioaren bideragarritasunari buruzko galderak. Hona horietako batzuek:

Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Energia-kantitatea sistemaren tamainaren, kokapenaren, panelen inklinazioaren eta instalazioak jasotzen duen eguzki-argi kantitatearen araberakoa da. 1 kW-ko eguzki-panel tipiko batek, Euskal Autonomia Erkidegoan 950 eta 1.400 kilowatt orduko (kWh) artean sor ditzake urtean, kokatuta dagoen eskualdearen arabera.



Plaka-fotovoltaikoak Itziarko Kanala jatetxean. DKT

Zer alde dago energia fotovoltaikoaren eta termikoaren artean?

Eguzkiaren energia baliatzeko sistema nagusiak bi dira: fotovoltaikoa eta termikoa. Lehenengo sistemak eguzki-plaken bitartez eguzkiaren energia fotovoltaikoa jasotzen du eta elektrizitate bihurtzen. Bigarren sistemak, berriz, urez beteta dauden hodi batzuen bitartez, eguzkiaren energia termikoa (beroa) jasotzen du eta energia horrek ura berotzen du eta kasu batzuetan lurruna

sortuz, turbina bat mugitu eta elektrizitatea sortu ere bai.

Eguzki-energia erabil daiteke gauean edo lainotuta dagoenean?

Eguzki-plakek eguzki-argi zuzena behar dute elektrizitatea sortzeko. Hala ere, energia biltegitratzeko sistemek, bateriek adibidez, egunean zehar sortutako elektrizitatea gauetz edo egun lainotsuetan erabiltzeko biltegitratzea ahalbidetzen dute.

Zenbat denborako balio-bizitza dute eguzki-plakek?

Eguzki-plaken balio-bizitza 25 eta 30 urte bitartekoa da. Denbora horretan zehar, elektrizitatea sortzeko gaitasuna apur bat murriztu daiteke, baina modu eraginkorrean funtzionatzen jarraitu ohi dute.

EGUZKI-PLAKEN BALIO-BIZITZA ERAGINKORRA 25 ETA 30 URTE BITARTEKOA DA

"Energiaren %20a eskuratzen dugu eguzki-plaketatik"

ALBERTO SANCHEZ ETA MARIAN GARCIA KANALA JATETXEA

Duela bi hilabete, plaka-fotovoltaikoak ezarri dituzte Itziariko Kanala jatetxean. Guztira, 38 plaka ezarri dituzte, teilatuaren alde bietan.

Zein izan da arrazoa eguzki-plakak ezartzeko?

Jatetxean argindar asko kontsumitzen dugu, batez ere, labeetan eta garbiketa lerroan. Duela hilabete batzuk, Ukrainan gerra hasi ostean, faktura handiak iritsi zitzaizkigun, bai argindarrarenak eta baita gasarenak ere. Orduan, jarri ginen pentsatzen lehenago edo beranduago bilatu beharko genuela energia iturri berriztagarriren bat. Eta horretan geundela, iritsi zitzaigun proposamena Debegesaren bitartez. Hainbat sistema aztertu eta gero, aerotermia, geotermia eta abar, ikusi genuen eguzki-plakak inbertsioa ez zela horrenbestekoa eta gainera bazirela laguntzak Europako Next Generation programaren eskutik. Hori ikusita, erabaki genuen aurrera egitea.

Zenbatekoa izan da inbertsioa?

24.000 euro ingurukoa. Laguntzetatik, berriz, 5.000 euro inguru jasoko ditugu eta aurreikusten duguna da zazpi bat urtean inbertsioa amortizatuta izatea eta hamar urtetik aurrera irabaziren bat izatea. Izan ere, momentu batzuetan, argindar soberakina sortzen da eta soberakin hori argindar sare orokorrera saltzen dugu, gure kasuan, Iberdrolaren

bitartez. Hortik ere diru kopuru bat jasoko dugu baina hori oraindik ez dakigu zenbat izango den zehazki, prezioa negoziatu barik daukagu eta. **Nolakoa izan da prozesua?** Enpresa batekin jarri ginen harremanetan eta beraiek egin

Momentu honetan, 38 eguzki-plaka (15,64 kWp) eta haiei esker, jatetxean kontsumitzen dugun argindarraren %20a eskuratzen dugu. Sukaldeko kamarak eta elektrogailu gehienek plaketatik datorren indarrarekin funtzionatzen dute.



Alberto Sanchez eta Marian Garcia Kanala jatetxeko arduradunak. DKT

ziguten estudio guztia, kalkulatu zuten zenbateko aurrezpena lortuko genuen eta abar. Ondoren, instalazioa ere eurek egin dute. Adibidez, guk, kontsumo handia daukagunez ez dugu akumulatorerik eta halakorik ezarri behar izan, plakek sortzen duten guztia kontsumitzen dugulako.

Momentu honetan, zenbat indar eskuratzen duzue plaka-fotovoltaikoetatik?

"EGUZKI-PLAKEN INBERTSIOA EZ DA HORRENBESTEKOA ETA BADIRA LAGUNTZAK"

Zein balorazio egiten duzue?

Oso ona. Alderdi ekonomikoaz gain, guk nahi dugu kontsumitzen dugun energia berriztagarria izatea, ingurumenari ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Gustura gaude eman dugun pausoarekin.



**Energia
bulegoa birtuala**

energia.debegesa.eus
agenda2030@debegesa.eus
943 82 01 10.



“GIBari errespetua eduki behar zaio baina zorionez, gaur egun bizitza normala egin daiteke”

XABIN FERNANDEZ

Aktorea

✍ Ainhoa Andonegi

2013an jakin zuen Xabin Fernandezek (Legorreta, 1985) seropositiboa zela, eta hamar urtez isilean egon ondoren, iazko martxoan publiko egitea erabaki zuen. Eta behin kontatzen hasita, gidoia sortu eta bere istorioa oholtzara eramateko prestatu zuen. *Kanpora sartzen* izena jarri zion obrari, birusaren kaiolatik irten eta lagunartean sartzen ari delako berriz ere. Istorio dramatiko da, baina umorez kontatzen du. Aitziber Garmendiak zuzendu du obra Sara Cozarren laguntzarekin, eta oholtzan Xabin bera ageri da, Intza Alkainekin. Domekan Elgoibarren izango dira, 12:30ean, Aita Agirre kulturgunean.

Medikuaren dei bat jaso zenuen GIB birusa zeneukala esanez. Nola gogoratzen duzu une hura?

2013ko martxoaren 11n jaso nuen dei madarikatu batean dauka oinarria obrak. Odol emailletara joan nintzen odola ematera eta handik egun batzuetara deitu zidan medikuak GIB-a nire odolean zegoela esateko. Ordotik hamarkada nahiko iluna bizi izan dut, bere argi tarteekin, baina ezkutuan egon naiz eta informazio hori isilean izan dut. Hamar urteren ondoren erabaki nuen kontatzea. Beti izan dut buruan kontatzea, baina erreminta gutxi nituen eta ausardia falta zitzaidan. Denbora behar izan dut dena ondo lantzeko, eta azkenean antzerki obra iruditu zitzaidan hau kontatzeko modurik aproposena. Kaiola batean egon naiz hamar urtez, eta kaiola hori oso presente dago obra guztian. Azken batean, kaiolaren, birusaren eta nire arteko harremana kontatzen dugu.

Beldurra, lotsa eta errua sentitu zenituela aipatu izan duzu. Hamar urteren ondoren, nola eboluzionatu dute sentimendu horiek?

Nik uste dut jarraitzen dutela hor sentimendu horiek. Ezin dut esan nire egoera erabat aldatu denik, baina asko arindu da pisua. Errua zen niretzat pisutsuena. Badaude gaixotasun batzuk erruarekin asko lotzen direnak. Adibidez, gripe bat daukagunean sarri entzuten dugu ipurdi bistan ibiliko ginela edo biriketako minbizia duen bati esaten zaio erretzaile izateagatik etorri zaiola. Gaixotasun honek ere badauka erruaren karga. Atzetik daukan mezua nolabait bada zerbait egingo genuela, ez dela zerutik etortzen, eta gainera hemen sartzen da zikinkeria, sexua eta droga, bereziki. Erruarena oso barruan izan dut, eta hau guztia barkamen prozesu bat ere izan dela esango nuke. Nire buruarekin asko hitz egin dut, eta erruaren sentimendua kudeatu behar izan dut. Lotsa eta beldurra gehiago da inguruarekiko, behin aurpegia eman ondoren etorriko denaren beldurra eta sentiaraziko dizun lotsa.

Euskal Herrian elkarte asko dago gai honen inguruan laguntzeko. Zuk jo al zenuen horietakoren batera laguntza eske?

Ez nuen inora jo; hobe bai, laguntza eskatu izan banu. Lehenengo gauza orduko bikotekideari kontatzea izan zen. Negarrez eta drama batean deitu nion, ezagutzen nituen kasuak heriotzarekin oso lotuak zeudelako eta oso beltzak zirelako. Zorionez bera garbi zegoen, eta horrek eman zidan lasaitasun apur bat. Eta ez nuen askoz gehiago egin, ez nuen ausardiarik izan terapeutarengana edo elkarteren batera jotzeko. Eta hemendik nabarmendu nahi dut elkarteek egiten duten lana. Sekulako zorrea daukagu. Oiartzungo Ardi Beltza elkarteak ezagutzen dut. Hamar urteren ondoren izan dut beraiekin hitz egiteko ausardia, eta oso ondo etorri zait. Talde terapia egin dut beraiekin eta beste esperientzia

batzuk ezagutzeko aukera ere izan dut beraiei esker. Horrelako egoeraren bat bizitzen ari den edonori gomendatzen diot elkarte horietakoren batera jotzea eta nik izan ez nuen ausardia izatea.

Hamar urtez isilean egotetik kontatzera pasatu zinen, oholtzara igota gainera. Ezin esan ausarta izan ez zinenik.

Ausarta ez dakit izan nintzen, baina apur bat pornografikoa badela pentsatu izan dut. Sentitzen nuen kontatu behar nuela. Badirudi inguruan ez dagoela inor nire egoera berean; badirudi ez dagoela inor infektatuta eta egoera hau Estatu Batuetan bakarrik gertatzen dela, edo Madrilen eta hiri handietan bestela. Baina errealitatea oso bestelakoa da, eta hori kontatu nahi nuen, euskaraz. Gai honen atzean mamu asko daude, eta beldurra dago oraindik. Entzute hutsak ikara ematen du. Baina nik egungo egoerara ekarri nahi nuen gaia, zorionez gauzak asko aldatu direlako. Birusari errespetua eduki behar diogu oraindik, baina jendeak jakin behar du gaur egun bizi gaitetzkeela birusarekin, bizitza normala eginez. Zorionez, oso pribilegiatuak gara hemen, eta bitarteko asko daude birusari aurre egiteko. Helburu nagusia hori zen: gaiaren eguneraketa egitea.

Gai tragikoa da, baina umorez kontatzen duzu. Nola hartzen du hori ikusleak?

Umorea sartzearena ez dakit nigatik egin dudan edo inguruagatik. Nire familiakoentzat eta lagunentzat ere oso gogorra izan da hau guztia, eta oso presente izan ditut guztiak. Nire gurasoek meritu handia dute. Amari esan nion kontatzeko ueña iritsi zela, baina modu polit batean egingo genuela. Hortik etorri zen umorea sartzearen ideia, eta baita ere, egungo egoera ez delako hain beltza. Baina ez da dena umorea, eta batzuek negar ere egiten dute. Kontraste handiko obra da. Oso pozik gaude ikuslearen harrerarekin. Jendea beldurtuta etortzen da, gaia serioa delako. Tentsio puntu batekin iristen dira antzokira, ez dakitelako zer ikusiko duten, baina gero pozik irteten dira. Guretzako oso polita da jendea aretotik pozik eta lasai irteten ikustea. Birusarekin harremana izan duen ikusle asko etortzen dira. Behin gerturatu zitzaidan neska bat esanez bere ama seropositiboa zela eta antzerkian negar egin zuela, baina barrez irten

"Istorio gogorak daude, eta ez bakarrik New Yorken; badaude Legorretan, Donostian eta Elgoibarren ere bai"

zela aretotik. Obraren momentu batean Chimo Bayoren kanta batekin hartzen ditut pilulak, eta esan zidan bere amak ere gauza bera egin zuela antzerkia ikusi ondoren eta barrez aritu zirela. Beste batek ere esan zidan osaba hiesak jota hil zela, baina aitak sekula ez duela ausardiarik izan horri buruz hitz egiteko, eta nire antzerkiaren ostean hitz egin dutela. Horrelakoak entzuteak izugarri betetzen nau. Istorio gogorak daude, eta ez New Yorken bakarrik; badaude Legorretan, Donostian, Elgoibarren eta beste hainbat lekutan ere. Elgoibarren ere gogor jo zuen gai honek eta seguru badaudela oraindik familiak ez dutenak gai honi buruz hitz egiten. Gaia apur bat normalizatzen laguntzen badiegu, ni pozik.

Datorren martxoan bi urte beteko ditu obrak eta esango nuke forma hartzen joan dela. Nik idatzitako lehen obra izan da, eta umetxo bat bezala hasi zen oinez. Elgoibarrera helduaroan iritsiko da.



h a r i a n

**Indar
kontutan
parez
pare**





KARMELE GISASOLA HERRI KIROLARIA ETA XABI OSA ATLETA EGOKITUA

Mallabiko Zelai landetxean batu ditugu Karmele Gisasola Zenikazelaia eta Xabi Osa Mendes herri-kirolez eta crossfitaz berba egiteko. Ez zuten hasiera errazik izan biek bietara ere, baina biek ezagutu dute loria nork berean, eta gaur erreferente dira askorentzat.

Testua: Ainar Argoitia
Argazkiak: Asier Orbea

Elkarrizketa osoaren bideoa ikusgai eskualdeko tokiko komunikabideen webguneetan

ARGITARATZAILEAK

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt


Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Euria ari du goian behean Mallabian, eta zelaitarrek etxe ondoan duten harritikian babestu gara solaserako. Metro koadro gutxiko espazioan dozenaka harri daude ertzetan pilatuta, eta hiruzpalau txaleko zintzilik. Lanerako tokia da. Bi leiho luzexkek zelaira ematen dute, eta etxeko behiak ikus daitezke larrean, hausnarrean. Barruan bestelako hausnarra darabilte gure bi protagonistek, parez pare jarrita.

Emakumea izateagatik edo gorputz normatiboa ez izateagatik, ezberdinak zineten askoren begietara plazan agertu zinetenean. Nola oroitzen dituzue hasiera haiek?

Karmele G.: Beti kontaktzen dut aitak hogeitau urte egin zituela plazarik plaza eta ez zuela emakume batekin partekatu plazarik, urte askotan ehun erakustalditik gora egin zituen arren. Hori oso gogorra da. Esan beharra daukat Miren Urkiola hasita zegoela harri-jasotzen, baina entzuten ziren komentarioak ere ez ziren beti onak. Ezohiko zerbait zen emakume bat ikustea indar kontutan. Gure etxean, neba eta lehengusua hiruzpalau bat urterekin hasi ziren plazan aizkoran eta harri-jasotzen, baina nik 17 urterekin egin nuen saltoa, lehengusinarekin. Aitak animatu gintuen trontzan hasiera. Ordura arte beti izan nintzen traketsa kirolerako; beti izan nituen behar baino kilo gehiago. Gimnasia beti nintzen azkena gelditzen zena eta urte askoan pentsatu nuen ez nuela kirolerako balio, harik eta gustukoa topatu nuen arte.

Xabi O.: Gustuko duguna topatu eta orduak sartu behar dira; eta ez nabarmentzeko, baizik eta erakusteko geure buruei gai garela eta lortu dezakegula nahi duguna. Begira, ni hondoa jota eta gauza oso negatiboetan pentsatzen nengoen ispilu aurrean jarri eta buruak klik egin zidanean. 'Edo aldatzen duzu zerbait edo batek daki zer gertatu daitekeen hemen', pentsatu nuen. Askok sufritu nuen umetan. Lotsa sentitzen nuen nire gorputzaz eta ez nuen nahi izaten kalera irteterik, ez neukalako besteen begiradei aurre egiteko gogorik. Irain asko egiten zizkidaten eta beti saiatzen nintzen besoa ezkutatzeko. Zorionez esan dezaket lagunek eta etxekoek asko lagundu nindutela. Lagunek sekula ez zidaten galdetu ea bizikletan ibili nintekeen. 'Xabi, goazen bizikletan ibiltzera', esaten zidaten, baina askotan komentario negatiboek eragin



handiagoa izaten dute. Egoera horretan neure bertsiorik onena zein izango zen imajinatzen hasi nintzen, eta Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia. Garai zailak izan ziren. Ohitura txarrak hartuta neuzkan. Jan ere edozer egiten nuen lokalera jaisten nintzenean, baina ispilu aurrean jarri nintzen gau hartan bertan entsalada afaldu nuen eta hurrengo egunean korrika egitera irten nintzen. Hor hasi zen aldaketa, eta kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeen arren, nire gorputza ez zela oztopo ezertarako. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen. Eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu. Erabaki nuen ez nintzela entrenatuko gorputz jakin bat izateko, baizik eta indartsu sentitzeko. Strongman egiten hasi nintzen [herri kirolen bertsio amerikarra] eta esango nuke hainbeste jende ezberdin ikusteak engantxatu egin ninduela.



"Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia"

"Kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeela, baina nire gorputza ez zela oztopo ezertarako"

"AEBetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen, eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu"

XABI OSA

Adinez zaharragoa izan arren, etxeko mutilak baino dezentez geroago hasi zinen plazan eta etxekoek zerabilten ezizena hartu barik. Denontzat da desiragarri norbere izen-abizenez deitzea, baina zuenean Zelai goitizenak bazuen entzute bat. Kontzienteki baztertu zenuen?

K.G.: Ez. Lehen, euskaldunek normalean baserri izena hartzen zuten ezizentzat. Gurean, aitak, bi anaietan zaharrenak, Zelai hartu zuen; osabak, Zelai II.a; lehengusu Ioritzek Zelai III.a, eta gure nebak, Zelai IV.a. Akordatzen naiz Ermuko Santixau jaietan denok irten ginela plazara. Aurkeztu zituen esatariak gure etxeko gizonezkoak izen-abizenez eta Zelai ezizenez, gauza bera egin zuen gero Bihurri aita-seeekin, eta nire txanda iritsita, esan zuen: 'Eta Iparraldeko jokoetan, Karmele Gisasola'. Ni ez nintzen ohartu ere egin; hala zen. Bukatu zen erakustaldia eta etorri zitzaidan aurkezlea esanez pena hartu zuela etxeko guztiak Zelaitartzat aurkeztuta eta ni izen-abizenez. Lasai egoteko erantzun nion, ni jolasean ari nintzela-eta. Baina iritsi zen eguna nire nebak eta lehengusuak baino erakustaldi gehiago egiten nituela, txapelketa gehiago jokatzeko nituela eta orduan esan nien etxeko mutilei aldatu egin behar genuela. Dena den, herri-kiroletan esango nuke ez dagoela ezizena duen beste emakumerik.

Nola hasi zineten crossfiten?

X.O.: Ameriketara ezagutu nuen crossfita, baina han oso garestia zen, eta Euskal Herrira itzuli eta gerora hasi nintzen. Hona etorri nintzenez strongman egiten jarraitu nuen hasieran, baina ez nuen topatzen leku aproposik stronggeko ariketak egiteko crossfiten eman nuen izena.

K.G.: Akordatzen naiz Xabik [Osa] 2019an Anboto Crossfit zabaldu zuenean, ikusten nituela ikaskide izandako batzuk crossfitera joaten eta erabaki nuen izena ematea, harri-jasotzen aitarekin ibili arren, ez neukalako maisurik esateko sentadillak eta bestelakoak zelan egin behar ziren zuzen. Harria jasotzen ikusten dugunean norbait pentsatzen dugu indar handia izan behar duela derrigor, baina hemen dena ez da indarra. Da indarra, da teknika, da gure nortasuna eta da hauspoa. Harriak ere ezberdinak dira, eta harria jasotzeko moduak ere bai. Niri oso lagungarria egin zitzaidan crossfita, indarra egiteko. Jendeak uste du oso kaltegarria dela, baina gezurra da. Lesionatu izan banaiz, ez da

crossfitagatik izan; baizik eta, batzuetan, kontrakoagatik, ez joateagatik.

Harri-jasotzaileen etxean nola hartu zuten crossfiten izena ematea?

K.G.: Hasieran ez nion ezer esan aitari. Probatzera joan nintzen. Mugikortasun handirik ez neukan eta gaur baino hamar kilo gehiago nintzen. 'Nora ostia etorri naiz!', pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garenu guztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Kezkatzen ninduen etxean nola esan. Izan ere, gure aitaren buruan sentadillak, pisu hilak eta karga hartzeak egitea zen entrenatzea, eta etxean bageneukan material guztia. Eta etxean entrenatzen ari ginen egun batean, aitak, harrituta moduan, bota zidan: 'Ene, indarra egin duzu!'. Orduantxe esan nion crossfiten hasi nintzela. Crossfita oso lagungarria izan zitzaidan bereziki pentatloia prestatzeko. Harri-jasotzen, gaur, ez dira sasoi bateko hamar minutuko txandak-eta egiten. Oso lan motzak izaten dira, baina pentatloian harri-jasotzen, txingetan, aizkoran eta korrika egin behar genuen eta lan luzeago baterako prestatzeko eta arnasa egiteko oso ondo etorri zitzaidan crossfit egitea.

Gorputz normatiboak, kanon estetikoak... Erakartzen du crossfitak gero eta jende gehiago, baina errezelo batzuk sortu ere bai beste askorengan.

X.O.: Gertatu zait herri-kiroletan eta baita crossfiten ere. Etorri izan zaizkit emakumeak boxera, eta esan: nik ez dut gorputz gihartsu horiek izaterik nahi.

K.G.: Akordatzen naiz gimnasioan halterofilia egiten ari ginen batean nola esan zenigun lasai egoteko, barra bat jasotzearen ez ginela koadratuak jarriko-eta. Astean bi aldiz joanda ezinezkoa zela hori, baina indar ariketak egitea oso lagungarria izango zitzaigula gure eguneroko lanetarako. Beste hori ere bada. Niri gustatzen zaizkit emakume gorputz gihartsuak ere, baina jende askori oraindik zatarrak iruditzen zaizkio. Eta ulertu dezaket jende bati ez gustatzea, baina ulertu dezatela haiek beste batzuei gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra.

X.O.: Bai, jakina. Ohartu behar gara gorputzen inguruko komentarioek min egin dezaketela. Dena



den, komentario horiek askotan etxeoengandik etortzen dira, amengandik-eta, lehen ez zirelako halako emakume gorputzak ikusten. Iruditzen zait asko ari garela aurreratzen, gero eta neska gehiagok uste dutelako gorputz indartsua izatea osasungarria dela eta gainera erakargarri ere izan daitekeela. Crossfiten egiten ditugun ariketek eguneroko mugimenduetarako prestatzen dute gorputza. Sentadilla bat eseri eta altxatzea da bizitzan. Pisu hila jasotzea erosketak poltsak altxatzean egiten dugun mugimendua da, eta nik neuk behintzat hilkutxan sartzen nauten eguneraino nahi nuke erosketak jasotzeko gai izatea. Nire ustez crossfita izan behar da zerbait jendeari lagunduko diona. Ikusten dudana da, baina, jende asko gehiegi obsesionatzen dela.

K.G.: Esan eta esan ari zaizkigu, batez ere emakumeok indarra landu beharko genukeela menopausia aurreko urteetan. Egia da, baina, ni neu ere ez nagoela ohituta 50 urteko emakumeak gimnasia joaten ikusten. Baina indarra landuta osasuntsuago eta hobeto sentituko gara eta ariketa fisikoa taldean egiteak buruko karga arintzen ere lagunduko digu. Akordatzen naiz beste entrenatzaile batek ere nola esan zidan behin ariketa eszentrikoak eta gomekin egiten ziren ariketak txorradak zirela, baina ez da egia. Gauza asko landu daitezke eta edozeinek egin ditzake ariketa horiek.



Txapelketetan gero eta emakume gehiago ikusten dira, batean zein bestean.

X.O.: Bai, eta bai herri-kiroletan eta bai crossfiten ere nik gehiago gozatzen dut emakumeak ikusten pisua altxatzen gizonak ikusten baino. Iruditzen zait aukerak falta izan dituztela, baina aukera eman zaienean erakusten ari direla oso gai direla indar kirolak egiteko.

K.G.: Bai, niretzako oso polita da, urte luzez ikusi bakoa izan delako eta erakutsi dugulako ikuskizun politikak eskaini ditzakegula. Harri-jasotzen, emakumezkoetan, markarik handiena Idoia Etxeberriak dauka. Bi eskurekin 163 kiloko harria dauka altxatuta, eta esku bakarrarekin 118koa. 16 urterekin, Idoiak, 120 kiloko errektangularra jaso zuen. Iaz, Olaia Esnaolak, 16 urterekin, 125 kilokoa jaso zuen, eta aurtan, Maddi Gesalagak berdindu egin du marka, baina 15 urterekin. Ni horrek izugarri pozten nau.

**"Nora ostia etorri naiz!",
pentsatzen nuen. Uste dut
box batera sartzen garen guztiok
lehenengo sentitzen duguna lotsa
dela. Izerditan hasten nintzen
ezertan hasi orduko, baina
probatu nuen eta asko gustatu
zitzaidan"**

**"Ulertu dezaket jende bati
ez gustatzea emakume gorputz
gihartsuak, baina ulertu dezatela
haiek beste batzuei gustatzen
zaizkigula eta gainera ez dela
ezer txarra"**

KARMELE GISASOLA

Nola entrenatzen zarete?

K.G.: Gure aita, bere sasoiaren, astean hiru bat aldiz Oizera igotzen zen etxetik hauspoa egitera, eta beste hiru bat aldiz Iruñeko gimnasio batera joaten zen urtarriletik martxora, indarra egiteko. Lurrean amaitzen zuela esaten du. Gertatzen dena da guk herri-kiroletan ez daukagula egutegirik. Nik urtarrilaren 1ean ez dut jakitzen zenbat txapelketa izango diren, gonbidatuko ote nauten, noiz izango diren eta ezer ez, eta beraz, ez dakit noiz egon behar naizen indarraldi betean denboraldian zehar. Eta denok dakigu ezin dela urte guztian egon sasoirik onenean.

X.O.: Horrek asko zailtzen du, bai. Kirolean, txapelketa asko izateak interferentziak sortzen ditu entrenamenduan. Niri lehiatzea ez zait asko gustatzen; gehiago gustatzen zait entrenatzea, nire buruaren kontra egitea... Urtean bi txapelketa jokatzeko ditut. Irailtik martxora arte karga lantzen dut, zure aitak egiten zuena. Astean sei egunez entrenatzen naiz, lauzpabost ordu egunean. Gogorra da, eta jakina, iristen da larunbata eta ez dut beste ezertarako gogorik izaten. Sakrifizio handia eskatzen du, bai gurea, kirolariona, eta baita ingurukoena ere, haiek ere ordaindu behar izaten dutelako, entrenatzen ez gauden denbora deskantsurako behar dugulako eta bete behar dugulako hori, ahal izanez gero jakina.

"Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago"

KARMELE GISASOLA



Niri gertatzen zaidana da kirolari profesionala izan arren lan egin behar dudala bizitzeko, hemen babeslerik ezean ez dagoelako dirurik.

K.G.: Bai, ni ere berdin; biok dauzkagu gure negozioak, gure kiroletik ezin delako bizi. Udan oso txarto egon naiz ni gerritik; ez nekien zer zen. Fisioterapeutarenera joaten nintzen, ipintzen ninduen ondo, baina entrenatzen hasi eta negarrez amaitzen nuen, minez. Inori ez dizkiot opa udan pasatu ditudan minak. Askotan gelditu naiz plazan ere azkeneko harria jaso ezinda, minaren minez, negarrez. Erakustaldia amaitu domeka iluntzez, deitu osteopatarri urgentziaz zaindu nazan, hasi berriro, eta ezin. Hala, banan-banan deitu behar izan nien antolatzaile guztiei udako bi hilabeteetarako lotuta neuzkan erakustaldi guztietarako ezetza eman eta ordezkoak topatzeko.

Eta halakoetan nondik ateratzen da entrenatzeko indarra?

K.G.: Hemen, harritokian, aita eta neu egoten gara bakarrik eta askotan motibazioa falta izaten zait entrenatzen hasteko. Eguraldi txarra egiten duenean, hilekoarekin nagoenean... dena txarra ikusten dudana egunetan oso gogorra egiten zait bakarrik aritzea. Baina talde baten izena ematen duzunean, burua behartuta sentitzen duzu joatera, aktibatzen zaituzte eta ingurukoek asko laguntzen dizute. Hori dauka crossfitak honek ez daukana, edo nik hemen ez daukadana, badirelako herri-kiroletan beste batzuk taldean entrenatzen direnak. Ni harritokian lehiatu egiten naiz eta ez nintzateke

kapaz beste lehiakide batekin batera entrenatzeko, joango nintzatekeelako nire onena ematera barik bera gaintzera. Ikasketa prozesu bat da hori ere, eta ikasi egin beharko nuke.

X.O.: Kirolari profesional bat naiz, mundu mailan lehiatzen dena, eta entrenatzaileak jartzen didan dena egin behar izaten dut Atik Zra.

Nola daramazue presioaren kontua?

X.O.: Txapelketetan hasi nintzenean irabaztea besterik ez neukan buruan eta ikaragarri zaintzen eta prestatzen nintzen, baina iristen zen eguna eta erlojuan atzera kontaketa hasten zenean blokeatu egiten nintzen. Antsietateak hartzen ninduen, ahoa sikatzen zitzaidan eta ezin izaten nintzen zentratu egin beharreko mugimenduetan. Eta horregatik hasi nintzen kirol psikologo batera joaten. Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua. Esango nuke jokatu ditudan lehenengo bi munduko txapelketetara ezin prestatuago iritsi nintzela, baina buruak huts egin zidala.

K.G.: Bai, buruko osasuna oso garrantzitsua da. Ondo zaudenean, ez duzu premiarik sentitzen, baina uste dut denok joan beharko ginategela halakotara. Azkeneko lau urteetako Euskal Herriko txapelduna naiz ni harri-jasotzen, bosgarren txapela jokatu dut orain, eta irabazi egin nahi dut, baina lesio batetik



"Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua"

XABI OSA

nator eta horixe ari naiz bereziki lantzen. Neure buruari esaten diot ahal dudan guztia egingo dudala, baina ez dela ezer pasatzen azkena geratuta ere, neurea egiten badut. Baina teoria oso polita da, eta praktika, berriz, kaka bat.

X.O.: Niri ere asko kostatu zitzaidan, baina ikasi nuen. Lehen, asko inporta zitzaidan kanpoko jendeak nitaz pentsatzen zuenak, gertukoei huts egingo ote nien..., baina konturatu naiz maite nauen jendeak berdin-berdin maiteko nauela, izan txapeldun edo azken. lazko txapelketarako entrenatu nintzen, baina ez dut uste aurrekoetako sasoi berean nengoenik, lesio batetik ere banentorrelako, baina guk gurea egin genuen, hirugarren gelditu ginen eta pozik, guretzako jardun ginelako eta ez beste jende hori gustura geratu zedin. Uste dut gehiegizko presioa jartzen diogula kirolariok geure buruei.

K.G.: Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago. Eta zoriondu behar ditugu, lehiakiderik gabe txapelketarik ere ez legokeelako.

'Ginen'. Plurala erabili duzu, lehiatu bakarka lehiatu zinenean, Xabi.

X.O.: Jakina, bakarka arituta ere, kirolari guztien atzean dagoelako talde bat. Gure ahulguneak hobetzen

ematen dugu guk denbora asko, nahi eta ezin horretan, eta frustrazio handiak sortzen ditu horrek, ingurukoek ordaintzen dituztenak. Horregatik nire lorpenez ari naizenean beti pluralean hitz egiten dut.

Karmele, askotan galdetu izan didaten galdera bat egin nahi dizut: zer jaten duen kirolari profesional batek, askotan jendeak uste duelako nik letxuga, brokolia eta oilasko bularra bakarrik jaten ditudala.

K.G.: Gure aitak, entrenatzera Oiz mendira igotzen zenean, bueltan ez zuen urik edaten, txarto ikusia zegoelako. Pedro Langa zen orduan bere entrenatzailea, Deban bizi zena, eta astero txuleta-zinta bat ekartzen zion, egunean razioko txuleta bat jan zezan. Eta nire aitaren marka batzuk ez ditu inork gaingitu. Hamasei aldiz izan zen Euskal Herriko txapelduna eta hor daude bere markak, baina nik ikasi dudana da denetik jan behar dela, baina neurrian. Arazo bat badaukat, baina: oso-oso gozozalea naizela; etxetik datorkit.

X.O.: Nik ere azukre pixka bat behar dut otorduro. Galdetu dizut nik janariarekin arazoak izan nituelako. Eta ezagutu dut jendea beste kirol batzuetan ere janariarekin oso harreman ona izan ez duena. Nik uste izan nuen barazkiak eta arraina jan behar nituela bakarrik, nire gorputzak kanon baten barruan egon behar zuelako. Nutrizionistak zabaldu zizkidan begiak.

K.G.: Oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait da benetan profesionalak direnen kontsultetara joatea. Eta buruko osasunarekin, berdin.



Onintza Loiola, Mikel Cornejo, Rafa Furnier, Asier Etxaniz eta Josu Iriondo.

ASIER ETXANIZ ETA JOSU IRIONDO

Txoteko Ezpata taldeko kideak

✍ Aina Argoitia

Txoteko Ezpata taldeak estreinako diskoa kaleratu zuen joan zen eguenean: 'Ilunpean jai duzu'. Tolosako Bonberenean grabatu dute, eta hamabi kantu bildu dituzte, euskaraz guztiak. Gaur, barikua, kontzertua emango dute Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etan. Bost dira taldean: Onintza Loiola (teklatura), Rafa Furnier (bateria), Mikel Cornejo (ahotsa), Josu Iriondo (baxua) eta Asier Etxaniz (gitarra eta korduak), eta azkeneko bien ahotik jaso dugu taldearen eta estreinako diskoaren berri. Diskoa bera Pitxintxun eskura daiteke Elgoibarren, eta Morroskillo opari-dendan eta Uztargi tabernan, Mendaron, baina Bandcampen ere badago eskuragai.

“Kantuek badute gure izatearekin edo sentitzeko moduarekin zerikusirik”

6Nemen9, C69, Andrankan, The Brian Valeta Movement edo Maraca Diablo taldeetan ibilitako musikariok osatzen duzue taldea. Noiz sortu zenuten proiektu berri hau?

Asier Etxaniz: Elgoibarko Udalak musikarientzako lokalak zabaldu zituen hasi ginen elkartzeko gutako hiru: Josu baxuarekin, ni gitarrarekin eta kantuan Mikel. Bateriaren faltan, erritmo-kaxa batekin moldatzen ginen, baina horixe, justuan. Errepertorio bat bageneukan, baina mugatzen gintuen bateria-jolerik ez izateak eta baita zuzenean jotzeko prebisorik ez izateak berak ere. Pasatu zen jende bat lokaletik probatzera ere, baina ezer ez, eta hala geundela, pandemiak harrapatu gintuen. Inguru horretan Maraca Diablon parte hartzeko proposatu zigun Ina Iriondok Josu, Rafa eta hiruroi. Grabatu genuen diskoa, eman genituen kontzerturen

batzuk, eta Ina beste gauza batzuetara jarri zenean, libre gelditu ginen gu hirurok. Orduan heldu genion proiektu honi serio, Rafa batuta bateriara. Sortzen genuen musika jende aurrean erakusteko baldintza jarri zigun Rafak hasteko; motibazioa behar zuen. Eta bai, arrazoia zuen: zerbait grabatzeko edo jendaurrean jotzeko prebisorik ez baldin badago, gogorra egiten da entsegatzera joatea, are gehiago lanetik berandu batean irtenda. Eta halaxe animatu gara, kanpoan, orain ere, hotz egiten duela sentitu arren.

Esan daiteke Maraca Diablorekin plaza batzuk egiteko aukerak piztu zuela zuengan proiektu berri bati ekiteko barruan zeneukaten harra?

Josu Iriondo: Hein handi batean, bai, urteetan genbiltzalako kantuek sortzen-eta,

baina bestelako pretentsiorik gabe. Bultzada bat izan zen, bai, guretzat, Maraca Diablorekin plazak egiteko aukera.

Ez da sortzailea etiketa zalea izaten normalean, baina nola definituko zenukete egiten duzuen musika?

A.E.: Bai, amorrazio handia ematen digu musika etiketatu beharrak, baina argitaratzaileek ere eskatu ziguten zerbait zehaztea eta pop-rocka egiten dugula diogu geure buruaz, bestelako abizenik jarri gabe sortzen dugunari. Rockaren egitura klasikoan, bateria, baxua, gitarra eta ahotsaz baliatu gara eta diskora eraman ditugun hamabi kantuetan libre ibili nahi izan dugu erritmo eta melodietan. Ez gara gauza konkretu baten bila joan, egia esan. Gure gustuak eta abileziak dauzkagu eta horiei eman diegu bidea, baina bestetik gure mugak ere baditugu eta horiek ere baldintzatuko zuten proiektua. Gure gustuko eszena girorik ere ez dago 2024an eta geurea egitera joan gara. Beraz, libre da hemen etiketak jartzea, baina etiketak jarri behar badira jar ditzatela beste batzuek.

J.I.: Hori da. Dena den, gure gustuko eszenarik ez dagoen uste hori beti sentitu izan dugu. 6Nemen9 ginenean ere, ezberdin sentitzen ginen garaiko giroan, baina eman genituen 50en bat kontzertu. Kosta egiten da, baina kanpora irtetea da naturalena bestetik.

Ezlekuak, otsoak, uluak, mamuak, ametsetik esnatze gogorrak... Kezka, beldurrak eta ziurgabetasuna oso presente daude zuen hitzetan. Bost kantutako hitzak ez beste guztiak zureak dira, Asier. Zer duzu esateko?

A.E.: Bai. Jon Gerediagaren hitzak dira *Ilunpean* kantukoak, Jon Miranderenak dira *Ametsetatik* eta *Oianone*, Harkaitz Canorena *Jai duzu*, Joseba Sarrionandiarena *Preso egon denaren gogo*a eta gainerakoak nireak. Esango nuke *Oianone* albora lagata, besteek badutela tematika bat edo badirela giro jakin baten bueltakoak; kezkatik, zinismotik eta parodiatik dute gehienek. Baina egia esan, sortu eta gerora konturatu naiz ia ez dagoela umorerik gure kantuetan eta diozun bezala ziurgabetasun hori asko azaltzen dela gure letretan. Badu gure izatearekin edo gure sentitzeko moduarekin zerikusirik horrek. Duela

"Orain ere, kanpora irten behar honetan, zalantza asko dauzkat nik neuk, merkatua ez dagoelako lehen baino hobeto. Lehen bezain hotz egiten du kanpoan, edo hotz handiagoa, beharbada"

- ASIER ETXANIZ -

27-28 bat urte laga genuen 6Nemen9, hein handi batean publikorik ez geneukalako. Su Ta Gar eta Negu Gorriak taldeen garaiak ziren haiek. Orain ere, kanpora irten behar honetan, zalantza asko dauzkat nik neuk, merkatua ez dagoelako lehen baino hobeto. Lehen bezain hotz egiten du kanpoan, edo hotz handiagoa beharbada, eta guk adin bat ere badaukagu. Ez dago erraza.

J.I.: Merkatuan beharbada lehen baino hamar bider talde gehiago daude, baina entzule gutxiago daude eta plazak ere gutxitu dira. Publikoa dago BEC betetzeko Bruce Springsteen datorrenean. Urtebete aurretik jartzen dituzte salgai sarrerak kontzertuetarako eta egun bakarrean amaitzen dira, baina hori kultura baino gehiago turismoa dela esango nuke.



A.E.: Pandemian ere toki ez formal guztiak itxi ziren eta gero askok ez zuten gehiago aterik zabaldu. Era berean, gaztetxeetan-eta boluntario lanean dabiltzanak gazteak dira normalean eta gazteak ez daude guk eta gure adin bueltakoek egiten duguna entzuteko, normala den bezala. Izena egina ez duenak zaila dauka orain, baina asumituta daukagu hori.

"Egin guran baino hobe eginean" diozue 'Erdia egin dugu' kantuan.

A.E.: Norbere burua ere engainatu egin behar da hemen, zerbait egingo badugu, eta horri erantzuten dio esaldi horrek. Trantze bat da, pasatu behar dena.

J.I.: Bai, lehen ere ibilitakoak gara gu mundu honetan, eta beti izaten dira kezkek, beldurrak eta halakoak buruan abiatzeko orduan, baina gero, aurrera egiten dugu beti.

A.E.: Bai, eta merezi du, besterik ez bada lokalean entseguetan izaten dugun giro horregatik. Maiatzetik hona gure telegram bidezko mezuek behartzen gaituzte aktibo egotera eta mila gauzatan pentsatzera: sare sozialak, argazkiak egitea, aurkezpenak egitea... Kantuak sortzea ez den gauza asko pentsatzera behartzen zaitu orain diskoa grabatu eta plazara salto egiteak, eta ez gara gu horretan natiboak. Askok aldatu da mundu hau.

Biniloan eta CDan eman duzue argitara zuen estreinako lan luzea, hamabi kantuz osatutakoa. Hamabi. Hori bera ere ez da beharbada ohikoena garai hauetan. Non eskura daiteke diskoa?

J.I. Bai, joan zen ostegunean argitaratu genuen ofizialki, nahiz aurreragoko asteetan bazebiltzan kantu batzuk plataforma eta sareetan bueltaka. Udaberrian grabatu genuen diskoa Bonbereneako estudioetan, Karlos Osinagarekin, eta biniloan eman dugu argitara, baina CDa ere badakar barruan opari. Hori bera ere bada, bai, beharbada azpimarratzekoa, gaur egun ia inork ez duelako ateratzen hain lan luzerik, inork ez duelako sortzen hamabi kantuko disko bat. Gehienek, asko jota, sei bat kantuko diskoak, singleak... argitaratzen dituzte.

Spotifyn eta Bandcampen dago disko osoa entzугai, eta Elgoibarren eta Mendaron, Pitxintxu

eta Morroskillo dendetan eta Uztargi tabernan ere eskuratu daiteke. Bestela, kontzertuetara ere eramango dugu saltzeko, eta Durangoko azokan ere izango gara.

Lau lagun hasi zineten hasieran, baina bosgarren lagun bat batu zaizue orain azkena.

A.E.: Diskoa grabatzen hasterako lau ginen taldean, baina grabazio estudioan nahi beste kapa grabatu daitezke. Kontua da estudioan egindako lana defenditu egin behar dela zuzenekoan eta hor herren ikusten ginela pixkat bat. Diskoan lau bat kantutan sartu dugu teklatura. Onintza Loiola mendarorari eskatu genion laguntza horretarako, eta orain, zuzenekora begira, kantu gehiagotan ere ari gara teklatura sartzen. Luxua da Onintza gurekin izatea. Esan digunez sekula ibili gabea da aurrez halakoetan, baina musika ezagutza handia dauka eta guretzat laguntza handia da.

EME egunean jo zenuen, baina diskoa grabatu osteko lehen kontzertua izango da gaurkoa. Nola zaudete?

J.I.: Pozik. Apirilaren 20an izan zen EME eguna eta aukera hura oso ondo etorri zitzaigun grabazio saioak hasi baino astebete aurretik izan zelako. Proba handia izan zen EME eguneko, baina gaurko kontzertua berezia izango da, erronka handiagoa ere badelako, diskoa grabatu osteko kontzertuan maila eman beharra dagoelako, are gehiago gure adinean. Zorrotzak eta exijenteak gara gure buruekin eta gustatzen zaigu egiten duguna ondo egitea. Gure onena emango dugu.

Epe laburrera ba al duzue beste kontzerturen bat lotuta?

A.E.: Bai. Azaroaren 15ean Tolosako Bonberenean joko dugu, eta kurioa izango da kontzertua, Aterkings taldearekin batera joko dugulako eta Aterkingsen jotzen dutelako 6Nemen9n gurekin batera aritu ziren Alberto Gonzalez eta Martxelo Mendizabal. Bestalde, aurki aterako du Bonbereneak gure bideo bat, *Bonberenea live sessions* proiektuaren baitan grabatutakoa. Han bertan, zuzenean eta hiru kamerakin egindako grabazioa da, eta lau kantu biltzen ditu.



Maala bete lagun, dantzan

✍ Aina Argoitia
📍 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi

Maalako parkea goraino bete zen barikuan Gora musika taldeak Elgoibarko Udal Musika Bandarekin eta Inazio Bereziartua musika eskolako abesbatzakoekin eman zuten kontzertuan. Gora Musikakoek lekuan lekuko bandekin eta koruekin ematekoak dituzten kontzertuetan estreinakoa izan zen Elgoibarkoa eta aho zapore ezin gozoagoa utzi zuen. Juanma Saez eta Txomin Mujika bandakideek egin zituzten abestien konponketak, eta Patxi Zabaleta eta Andoni Mujika musikari elgoibartarren laguntza izan zuten bandakideek zuzenekoan. Gorka Mujikak zuzendu zuen banda eta Gora Musikako Urko Osoz eta Oihane Yarzak gidatu zuten saioa, Naroa Villa eta Inma Martin dantzarien eta Haizea Armendariz abeslariaren laguntza ezinbestekoarekin. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus



'Txirristaka kantuz' jaialdiak 125 bat musikari eta abeslari batuko ditu oholtzan gaur, Mendaron

Mendaroko herritar talde batek, In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatu dute gaur iluntzean Mendaroko frontoian egingo duten *Txirristaka kantuz* jaialdia, eta Debako, Mutrikuko, Elgoibarko eta Mendaroko musika eskoletako 125 bat lagunek parte hartuko dute. Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurrenaren baitan antolatu dute jaialdia, eta musika eskola bakoitzak hiruzpalau kantu interpretatuko ditu. Mendaroko Bizi Poza txarangak ere parte hartuko du ekitaldian. Txirristakaren bertso-sortak dira



entzungo direnak eta sorta horientzako musika da musika eskoletan propio gaurko sortu dutena. Antolatzaileek mokadua prestatuko dute parte-hartzaile gutzientzat.

Aita Agirre kulturgunea bete egin da Alguillo&Alkimistak taldearen aurkezpen-kontzertuan

Alfonso Guillomusikari elgoibartarrak Alguillo&Alkimistak proiektua aurkeztu zuen domekan jendaurrean, Aita Agirre kulturgunean, eta aretoa bete egin zen kontzerturako. Duela hiru bat urte hasi zen Alfonso Guillo azken proiektu honi forma ematen. Oso argi zeukan zein motatako soinua nahi zuen, eta horretarako musikariak batu zituen. Bateriaz gain, perkusionista bat ere badauka taldeak, eta hiru lagun sartu ditu koruetan, horietako bat, Silvia Hernandez elgoibartarra. Hamar kantuz osatutako *Burua makurtu gabe* diskoa aurkeztu zuten Aita Agirre kulturgunean.



Puro Relajo taldearen kontzertua bihar, Elgoibarren

Sanbartolomeetan euriagatik bertan behera laga behar izan zuten Puro Relajo talde nafarraren kontzertua biharko, urriaren 26rako, programatu du Elgoibarko Udalak. Maalan izango da kontzertua, 19:00etan hasita.

Jone Arriolaren 'Dena asmatuta dago' filmak irabazi du Euskal Zine Bilerako sari nagusia



Hogei lan lehiatu dira Lekeitioko Euskal Zine Bilerako sail ofizialean, eta Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago* filmak eskuratu ditu Urrezko Antzara eta 3.000 euroko saria. Ainara Elgoibar zinegileak, Martxelo Rubio aktoreak eta Nerea Ibarzabal bertsolariak egin dituzte epaile lanak, eta Jone Arriolaren lana "organikoa, naturala eta, batez ere, freskoa" dela azpimarratu dute. Xanti Agirrezabala eta Jon Ander Urresti aktoreen lana ere goraiatu dute, uneoro "egon beharreko tokian" daudela esan da. "Gidoirik gabekoa dirudien elkarriketa sinesgarri eta samurra aurkezten zaigu, eta aktoreen eta zuzendariaren arteko kohesio eta aurretiazko lan handia eskatzen du horrek", adierazi du epaimahaiak.

Saria eskuratu duen *Dena asmatuta dago* film laburraz gainera, Arriolaren beste film bat ere aukeratu zuten sail ofizialerako, *Hor Konpon* izenekoak. Rita eta Berta lapurren inguruko istorioa kontatzen du filmak. Auto gorri zahar batean bidaia hasiko dute bi lagunek, eta bazterrak nahastuko dituzte bidean, beren egunerokoan topatzen ez duten adrenalina horren bila. Hamalau minutuko iraupena du film laburrak eta estreinakoz Lekeitioko Euskal Zine Bileran proiektatu dute, euskara hutsez egiten den zinema jaialdirik zaharrenean.

'Primal Prime' antzezlanak gaur, Herriko Antzokian



Musika, umorea eta fantasia uztartzen ditu *Primal prime* komedia musikalak, eta gaur Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da. Sarrerek salgai daude webgunean: herrikoantzokia.eus. Dena den, Herriko Antzokiko lehiatilan bertan ere eskuratu ahal izango dira, bihar, 18:15etatik 20:45era bitartean, edo egunean bertan.

'Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak' haurrentzako antzerkia, domekan

Vivian Maier argazkilaria estatubatuarren (New York, 1926 - Chicago, 2009) argazki artxibotik tiraka, ezkutuan izan diren emakumeak bistara ekartzeko antzezlanak da Eidabe taldearen *Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak*, eta domekan Herriko Antzokian emango dute, 16:30etik aurrera. Maier argazkilaria izan zen, baina etxetik etxetik zaintzea izan zuen bizibide. XX. mendearen erdialdean argazkiak egin eta egin ibili zen AEBetan eta askotan errebelatu gabe laga zituen, diru eta denborarik ez zuelako. Bere material guztia ganbara batean topatu zuten handik urte batzuetara, eta hain justu ere argazki horien istoriak partekatuko dituzte publikoarekin antzezlanean. 6 urtez gorako haur eta familiei dago zuzenduta.



Nerea Arrutik irabazi du Euskal Herriko aizkolari txapelketa



Bigarren urtez hartu du Elgoibarko Kalegoen plazak Emakumezkoen Euskal Herriko Aizkolari txapelketako finala, eta bietan joan da buru berera txapela. Nagusitasunez gailendu zen Nerea Arruti aizkolari urnietarra. Txapelketako sei aizkolari onenak aritu ziren nor baino nor: Nerea Arruti, Nerea Sorondo, Oihana Fernandez de Barrena, Laiene Pikabea, Lucia Orbe eta Irati Astondo. Sei pago enbor ebaki zituen aizkolari bakoitzak: kanaerdiko bi 54 ontzakoak, 45 ontzako bi enbor eta beste bi 36 ontzakoak. Arrutik 17 minutu eta 33 segundotan amaitu zituen lanak. Iaz moduan, Nerea Sorondo beratarrak egin zuen bigarren 21:05 denborarekin; eta, Laiene Pikabea 21 urteko aizkolari gazteak osatu zuen podiuma, 23:42 denbora eginez. Iaz podiumaren hirugarren koskara igo zen Oihana Fernandez de Barrena arabarra sailkatu zen laugarren postuan (23:59). Aizkolari moduan jokatu duen lehenbiziko finalean bosgarren postua eskuratu zuen Lucia Orbe bilbotarrak (26:02). Orain arte pentatloian eta harri-jasotzen aritu izan da bilbotarra eta Euskal Herriko txapeldunorde ere izana da harri-jasotzen. Irati Astondoarentzat izan zen finaleko azken postua (28:30).

Finalaren aurretik gizonezkoen Euskal Herriko Txapelketako bigarren mailako kanporaketa jokatu zuten, eta hiru onenek lortu zuten azaroaren



24an jokatu duen finalerako txartela: Eneko Otañok (14:16), Ugaitz Mugertzak (15:40) eta Iban Resanok (18:09).

Boliviara eta Groenlandiara eginiko bidaiak eta alpinismoa eta mitologia uztartzen dituzten ikus-entzunezkoak, udazkeneko mendi emanaldietan

Elgoibartik mugitu gabe, Boliviara edo Groenlandiara bidaiatzeko aukera izango dute Morkaikoren Udazkeneko Mendi Emanaldi Ziklora gerturatzen direnek, gogoz bada ere. Bilboko Mendi Film jaialdiko azken edizioko film onenen eta arrakastatsuen emanaldiarekin hasiko dute Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa, azaroaren 8an, Herriko Antzokian. Gero, hiru hitzaldik osatuko dute zikloa, azaroaren 13tik 27ra, honako hauek:

Zikloalpinismoa Bolivian


Zikloalpinismoa praktikatzen dute Iñigo Unanue zumarragarra eta Kattalin de Pedro gorliztarrak; hau da, munduan barrena bizikletaz bidaiatzen duten bitartean mendiak igotzeko edo eskalada egiteko geldialdiak egiten dituzte, mendiko materiala baitaramate alforjetan. Elgoibarren emango duten proiektzioan ezagutu dituzten bide bakartuenetan bizitako esperientziak partekatuko dituzte, zehazki Boliviako eta Txileko hiru parke nazional zeharkatzean izan zituzten bizipenak. Azaroaren 13an izango da emanaldia, Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian, 19:00etan.

Aketegiko Mari, alpinismoa eta mitologia uztartzen

Koke Lasa mendizale ormaiztegiarrak ondu duen ikus-entzunezko lan honek Euskal Herriko paisaia ederrez gozatzeko aukera ematen du, baina "ezohiko begirada" bat erabilita, egileak zehaztu duenez. "Ez da mitologia edo alpinismoari buruzko emanaldi soila, Mariren eta gazte batzuen arteko kontakizun bat baizik. Aspalditik mugitu gara Aizkorrin, neguan batez ere, bertako kanal eta korredoreak igotzen. Bagenekien Mariren haitzuloetako bat hor zegoela eta bururatu zitzaidan lotura bat egin zitekeela kontakizun bat asmatuz", azaldu du Lasak. Azaroaren 20an emango dute Aita Agirre Kulturgunean (19:00).

Groenlandian bide berriak zabalduz

Abriendo Camino Volumen 2, Expedición Groenlandia ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Elgoibarren Maialen Rojo (Gasteiz, 1997) alpinistak, azaroaren 27an, Kultur Etxeko Sotoan, 19:00etan. FEDME Espainiako Federazioaren Alpinismoko Emakumeen Taldeko kideek —besteak beste, Maialen Rojo, Uxue Loizu eta Amaia Segurola euskal herritarrek— hiru urteko teknifikazioa egin zuten taldean, promozio bakoitzak egin ohi duen moduan, eta bigarren ikasturteari amaiera emateko Groenlandiara bidaiatu zuten. Zehazki, irlako ekialdeko kostaldera, Kangertitviatsaq eta Sangmiliik fiordoan artean goratzen den Mythic Cirque mendiguneko dorreetara. Goi mailako jarduera osatu zuten han, Mythic Cirque mendiguneko eta inguruko dorreetan, eta zortzi bide zabaldu zituzten.



Urtebetean Karakatera 365 aldiz igotzea da Iban Fernandezek erroka berria



Krakaterako bideetan gora eta behera etxean adina denbora pasatzen du Iban Fernandezek. Karakate kontu ezin bestetan igota edukiko duen arren, ez da ez aspertu eta, ezta ase ere oraingoz. 2016an egin zuen moduan, Karakate mendiarekin zerikusia duen erroka jarri dio bere buruari. Aurrekoan bederatzi aldiz igo eta jaitsi zen jarraian. Gainera, 2-dean B-rotuz taldeak errefuxiatuei laguntzeko elkartasun-proiektu bihurtu zuen Fernandezek erroka hura eta honek egin beharreko kilometro bakoitza (156 kilometro guztira) 25 euroan saldu zuen, eta batutako dirua -8.000 euro baino gehiago- Chios irlan (Grezia) salbamendu lanean ari zen Itsas Salbamentu Humanitarioa gobernuz kanpoko erakundeari eman zioten. Julen Ansolak dokumental batean jaso zuen Fernandezek erroka solidarioa.

Erronka berri honetan 365 igoera eta jaitziera egin nahi ditu Karakatera 2025ean. Igoera eta jaitziera bakoitzak 11 kilometroko ibilbidea eta 664 metroko desnibel positiboa duela kontuan hartuz, guztira 4.015 kilometro egingo lituzke erroka osatuz gero, eta 249.660 metroko desnibel positiboa metatu.

Urteko egun bakoitzean igoera bat egitea aztertu zuen hasieran, baina berarentzat ez dela egingarria ondorioztatu zuen. "Batetik,

ez daukadalako beharko nukeen denbora libre nahikorik lana dela-eta. Horrez gain, eguraldi oso txarreko egunak ere izango dira eta posible da batzuetan mendira ezin joan izatea alerta egoerengatik. Neu gaixotzea ere gerta daiteke, eta nire opor egunak Elgoibartik kanpora joateko ere erabili nahi ditut", dio. Arrazoi horiez gainera, Ehunmilak proban parte hartzeko asmoa ere badauka uztailan, eta aurreko asteak eta ondorengo prestaketarako eta errehabilitazioarako erabili nahi ditu. Arrazoi guztiak kontuan hartu eta gero, urteko egun batzuetan behin baino gehiagotan igo eta jaitziera osatu gura du erroka. Urteko zati batzuetan bi bider igo eta jaitziera naiz astelehenerik ostiralera, hiru bider zapatuetan eta beste bi alditan domeketan. Nire helburua da uztailera aurreikusitakoak baino 20-25 igoera gehiagorekin ailegatzea, Ehunmilak prestatzeko, oporrak hartu ahal izateko, eta urteko azken zatia lasaiago egin ahal izateko", azaldu du. Bere izaerarekin bat datorren erroka dela dio. "Konstantzia eta erregulartasun handia behar dira erroka hau gauzatu ahal izateko, eta horietatik nire ezaugarriak mendian nabiltzen".

Erronka 2025 urteko lehen egunean hasita aurreikusten du, urtarilaren lehen.

Dena prest Mendaroko apustu herrikoiairen hirugarren ekitaldirako

Iaz moduan, 54 lagun lehiatuko dira Mendaroko apustu herrikoian, hiru kidez osatutako 18 taldetan. Kuadrilla ezberdinetako lagunek eman dute izena eta zozketa bidez erabakiko dituzte taldeak. Gaur egingo dute taldeen zozketa, 20:00etan Herriko Enparantzan. Hortaz, talde-harremanak sendotzeko asti gutxi edukiko dute, bihar 09:30ean hasiko baita kirol erronka. Herriko Enparantzatik Gaintxiara arte nor azkarrago iritsi izango da jokoa, taldeka eta erreleboka. Etxebeko bidegurutzean eta Berasaluzen izango dira bi erreleboak, eta errepidearen ezaugarriak kontuan hartuta, autoetan ez igotzeko eskatu diete ikusleei. Lehen erreleboa egingo dutenek 1,9 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute (170 metroko desnibel positiboa). Bigarren erreleboa emango dutenek ere 1,9 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote, baina aldapa handixeagoa izango da, 200 metroko desnibel positiboa baitu Etxebetik Berasaluze arteko zatiak. Azkenik, Berasaluzetik Gaintxia gainera arteko zatiak 1,2 kilometro eta 190 metroko desnibela ditu. Iazko erronka Jon Larrañaga, Kepa Mendikute eta Hodei Ezpeletaren taldeak irabazi zuen. Kirol erronka amaitutakoan, parte-hartzaile guztiek elkarrekin bazkalduko dute Luzaiden, eta Udalaren ekimenez, Latuna Bando Txarangak girotuko du bazkalostea eta hortik aurrerakoa.



Finlean ezin izan dute Arrizabalagak eta Epeldek



Irun Hiria Pala Txapelketaren finala jokatu zuten zapatuan Kepa Arrizabalaga elgoibartarrak eta Iker Epelde azkoitiarrak, baina ezin izan zuten gauza handiegirik egin kolore bakarrekoa izan baitzen finala. Parekotasun handia egon da abuztu bukaeratik Irungo Uranzu pilotalekuan jokatu duten txapelketan, eta Lehen Mailako bi finalerdiak ere tanto bateko aldeaz erabaki ziren. Hala, finalerako ere lehia estua eta bizia aurreikusten zuten palistek eurek, baina, usteak erdi ustel gertatu ziren, Hodei Arregi eta Mattin Garbisu jaun eta jabe izan baitziren (25-9).

LANA**Eskaerak**

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago, barikutik domekara. Titulu soziosanitarioa daukat eta paperak legez. **631 020 169**

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Etxeko langile moduan jarduteko prest. **632 721 342**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka edo behar denerako prestutasunarekin. Esperientzia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobeak eskaini ditzaket. Berehala hasteko prest. **632 711 473**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, ospitalean... Titulu soziosanitarioa daukat. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, ospitalean... Titulu soziosanitarioa daukat eta erizaina naiz. Erreferentzia onak. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **643 505 662**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat. **637 222 318**

Adinekoak zaindu edo etxeetan garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia handia daukat. **641 121 795**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat. **632 708 954**

Eskaintzak


Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Lan kontratua eskaintzen da, astelehenetik ostiralera. Autoa eta ziurtagiri soziosanitarioak derrigorrezkoak dira. **688 670 009**


BESTELAKOAK

Giltzak aurkitu ditugu Basarte eta kiroldegi artean. Udaltzaingoaan laga ditugu.

KINTOAK

1969an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 9n. 12:00etan Kultur Kafean batuko dira, luntxa egiteko, eta gero bazkaria egingo dute. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte kontu honetan, azaroaren 5erako, izen-abizenak zehaztuz: ES22 3008 0182 87 5305561929

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatzaileak Elkartea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Zor duen hileko kuota ari gatazka erreklamatzeko gure komunitatean lokal jabe bati. Hainbat aldiz hitz egin ostean, adostasun batera iritsi gara bi aldeak, eta zordunak agindu du urtebeteko epean ordainduko duela zor duen diru kopuru hori. Jakin nahiko nuke komunitateak eskumenik ote duen zordunari zor duen diru guztia ordainketa bakarrean ordainarazteko. Izan ere, etxejabe batzuek ez daude konforme ordainketa horrenbeste atzeratzearekin.</p> <p>Komunitateak aukera dauka zor osoa aldi bakar batean ordaintzea exijitzeko, beti ere, bi aldeek ez baldin badute ordainketa sistema jakin bat adostu. Dena den, komunitate horretako jabe guztiek ez dute zertan onetsi bi aldeek adostutako ordainketa sistema. Akordioek helburu bakarra dute: epaiketara jo beharra saihestea zordunari kuota ordain dezan exijitzeko edo hasitako auzibidea amaitzeko. Legeak dio komunitateko gastuak jabeekideen batzarrean adostutako moduan eta epeetan ordaindu behar direla. Bestela, presidentek edo administrazioaileak epaiketara jotzeko aukera izango luke, beti ere jabeekideen batzarrak hala adostuz gero.</p> <p>AHOLKUA: zor duen guztia ordaintzeko exijitu diezaiokite etxejabeen batzarrak zordunari, eta hark ordainduko ez balu, batzarrak aukera izango luke epaitegira jotzeko eta auzibidea hasteko.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Primeran pasatu genuen zure urtebetetze ospakizunean! Gozatu beratziagarrena, egunez egun topera! Zorionak eta muxu pila bat, **Izar!**



Zorionak, **Etxahun!** Oso ondo ospatu zure 5. urtebetetzea. Muxu handi bat etxekoan eta lagunen partez.



Zorionak, **Bidart!** Gaur 6 urte! Besarkada potolo bat. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Gorka,** atzo 13 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Maiaren partez.



Zorionak, **Zoe!** Bihar 9 urte! Oso ondo pasatu zure eguna! Muxu handi bat familiakoan partez. Ilargiraino eta bueltan, gelditu gabe, maite zaitugu.



Zorionak, **bikote!** Dagoeneko 50 urte ezkondu zinetela. Larunbatean elkarrekin ospatuko dugu. Asko maite zaituztegu.



51 kintoen bazkaria egingo dugu azaroaren 16an. Sigma jatetxean izango da. Interesatuak 60 euro sartu beharko dituzte Laboral Kutxako kontu honetan: ES87 3035 0007 25 0071145420.




Ikastolan etorkizuna goxatzen



Bisita pertsonalizatuak

 943 744 441

Urte osoan matrikulazioa irekita



elgoibar ikastola

25 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Primal time'. Herriko Antzokian.

19:00 Txirristaka kantuz jaialdia. Mendaron, frontoian.

20:00 Elkarretaratzea. Sarek deituta, euskal preso, exiliatu eta deportatuen eskubideen alde. Kalegoen plazan.

23:00 Kontzertua: Txoteko Ezpatak. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.

26 ZAPATUA

09:30 Mendaroko kuadrillen arteko apustua. Herriko Enparantzatik.

10:30 Azpeitiko tren museora irteera. Altzolatik.

19:00 Kontzertua: Puro Relajo. Maalako parkean.

27 DOMEKA

10:00 Tailerra: Harreman osasuntsuak. Belen Capaperen eskutik, Lilan. Izena emateko: 656 869 534. Almaur Elkarteak antolatuta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

12:30 Antzerkia: 'Kanpora sartzen'. Aita Agirre kulturgunean.

16:30 Antzerkia: 'Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak'. Herriko Antzokian.

28 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Mindfulsex: sexualitate oso baterako gida praktikoa'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan, ele bitan.

29 MARTITZENA

17:00 Ipuin kontalaria: 'Zer duzu nahiago, ezkurra, hurra ala beldurra?'. Ixabel Agirresarobek emango du, Udal Liburutegian. Lehen saioa LH1ekoentzat, eta bigarren saioa LH2 eta LH3koentzat.

30 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra: 'Cayo hueso'. Maite Lopez Las Heras idazlearekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

31 EGUENA

22:00 Antzerkia: 'Akelarre'. Virginia Imazekin. Aita Agirre kulturgunean.

4 ASTELEHENA

18:30 Luki Maidagan Ayerdiren lanen erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 16ra arte.

AZKEN ZAPATUKO FERIA

URRIAK 26, ZAPATUA

09:00 - 14:00 Elgoibarko baserrietako produktuen eta Artalde artisau taldekoan produktuen salmenta. Kalebarren plazan.
11:00 Dislegi elkarteak txosna zabalduko du.
12:00 Umeentzako tailerrak. Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa. Kalebarren plazan.

JOLASAREN ASTEA

0-5 urte

URRIAK 25

17:30-19:00 Jolas librea
Lekuederren

* Euria egiten badu, 24an soilik egingo da, elizako arkupean.

5-12 urte

URRIAK 26

10:00-13:30 Erronka jolasa + hil amaierako azokako artile tailerra. Ludotekan batuko dira.

12-18 urte

URRIAK 27

17:30-19:00 Nintendo Swich. Gaztelekuan.

Guztientzat

URRIAK 25

17:00-19:00 Jolasa Plazara. Kalegoen plazan. (Euria bada, elizako arkupean).

GABA BELTZA - Elgoibar

Urriak 31

18:30 Atontze tailerra. Kalegoen plazan.

20:00 'Ibilaldi beltza'. Kalegoen plazatik, Maalako parkera.

Segidan, txokolatea banatuko dute.

ARIMEN GAUA - Mendaro

Urriak 31

17:00 - 22:00 Eskulanak, diskoteka, izu-ospitalea eta Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna. Herriko Enparantzan.

Azaroak 2 eta 3

18:00 Eskulanak, jolasak eta 'Ataun of the dead' trilogia emanaldia. Gaztelekuan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Volveréis'

26 zapatua: 19:00 / 22:15

27 domeka: 19:00

28 astelehena: 21:00

'Kneecap'

(Ongarri zinekluba)

30 eguaztena: 21:00

'Joker 2: Folie a dieux'

1 barikua: 19:00

2 zapatua: 19:00 / 22:15

3 domeka: 19:00

4 astelehena: 21:00

'Buffalo Kids' (euskaraz)

3 domeka: 16:30

**2024ko
botika
ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK:
Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URRIA

25 BARIKUA
26 ZAPATUA

27 DOMEKA
28 ASTELEHENA
29 MARTITZENA
30 EGUAZTENA
31 EGUENA

AZAROA

1 BARIKUA
2 ZAPATUA
3 DOMEKA
4 ASTELEHENA
5 MARTITZENA
6 EGUAZTENA
7 EGUENA
8 BARIKUA

Egunez

Arriola
■ Fernandez
■ Garitaonandia
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Soto

■ Soto
Arriola
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Soto

2024 urte guztian, gaeuz:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko dugu. Hortaz, domekan, **urriaren 27an, 03:00etan, ordubete atzeratu** beharko dugu ordularia.



GAU BELTZA, BIZILAGUNAK BELDURTU ETA HILDAKOEN ARIMEI DEITZEKO GAUA IZANGO DA URRIAREN 31KOA

Gaba beltza antolatu dute Elgoibarren, Inazio Bereziartua musika eskolak, Udal Ludotekak eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak urriaren 31rako, herriko beste zenbait eragilerekin lankidetzan. Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan Europa osoan ospatu izan den jai da Gaba beltza, deitura ezberdinekin bada ere. Euskal Herrian ere badira kontakizunak kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta jartzen zirenekoak, bizilagunak beldurtzeko eta hildakoen arimei bidea erakusteko. Erritu horietako batzuk galtzen joan dira, egiten zirenen ezagutza ere ia galtzeraino, eta horietako batzuk berreskuratzeko eta berriak sortzeko ahaleginean ari dira eragile asko herriz herri, tartean Elgoibarren Gaba beltza antolatuko dutenak. Eta asmo horrekin irtengo dira aurten ere kalera, trapu zaharrekin mozorrotuta.

Urriaren 31n, ibilbide beltza osatuko dute. 20:00etan hasiko dute Kalegoen plazan eta Maalan bukatuko dute. Aurrez, baina, mozorrotze eta atontze tailerra egingo dute Kalegoen plazan. Etxean mozorrotu nahi duenak gaubeltza.eus webgunean topatu dezake mozorroen inguruko informazioa. Ilundutakoan, kanpaiek iluntzeko zortzirak jotzen dutenean, hasiko dute arimen segizioa, eta Maalara arteko bidean geldialdiak egingo dituzte, dantzarako. Txistulariek, Uluka



batukada taldekoek, Atabalekoek eta Udal Gaztelekuok ere parte hartuko dute. Bukieran, txokolatea banatuko dute. Antolatzaileek aurreratu dute gaur magikoa izango dela eta bidean sorpresak izango direla.

MENDARON, ARIMEN GAUA

Arimen gaur izenarekin ospatuko dute Mendaron udazkeneko jai hau. Urriaren 31rako, 17:00etatik aurrerako, eskulanak egiteko eta aurpegiak margotzeko tailerra antolatuko du Arno Guraso Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Era berean, photocalla ere jarriko dutela zehaztu dute, bai eta diskoteka ere. Gauerako, berriz, Deabru Beltzak taldearen kalejira dauka iragarrita Mendaroko Udalak, 22:00etarako. *Su danborrak* ikuskizunarekin etorriko dira Deabru Beltzak taldekoak. Aker deabrua erabiliko dute, kalez kale, perkusio-joleen segizioa atzetik duela. Zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziak batzen ditu ikuskizunak.

Azaroaren 2 eta 3rako, berriz, eskulanak egiteko tailerrak, jolasak eta *Ataun of the dead* filma proiektatuko dute, Gaztelekuan. 18:00etan hasi eta 20:00ak arteko egitaraua izango da.



II. URTEURRENA

Andres Badiola Arakistain

2022ko urriaren 30ean hil zen, 86 urte zituela.

Familiakook gogoan izango dugu Andres, santu guztien omenez, azaroaren 1ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokian ospatuko dugun mezan.

Beti gure bihotzean.

Familia



III. URTEURRENA

Agurtzane Unamunzaga Zorrozua

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

**Lanbro artetik itsas geldira,
lehunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa.**

Maite zaitugu, ama.



Eskertzak eta urteurrenak
Barren astekarian eta barren.eus webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**
 **688 769 657**
 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**





Eman bultzada, indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

urriak 24 - azaroak 14



Saskien balioaren %25 Nafarroa erdialde eta hegoaldeko (Agerreko) euskalgintzara bideratuko da

errigora.eus



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€



Karta-jokoa +5€